

## JUANTXO-TXIKI BEGI-AUNDI

**Juantxo-txiki oso txikia da,** bere burua aundi iruditzen bajako be. Gauza guztiak oso beetik ikusten ditu: Zomorroen ikuspegitik. Orregaitik dana ikusten da aundikiro. Gauza guztiak, bere burua be bai, oso aundiak ikusten ditu eta oso aundiak iruditzen jakoz.

Danak aundi.

Dana zer da?

Ba, orixe, dana: dan guztia. Bai izaki, bai gizaki, bai abere, bai sentimentu, bai ekintza... Bere barruko eta bere kanpoaldeko gauza guztiak.

Guztiak dira aundi, bera txikia dalako.

\* \* \*

**Baita begi aundiak** ditualako be. Ikusten ditunak amentuzko kristalekin begiratzen ditu, bere begi aundiekin. Azpitik begiratzea da bat eta begi aundiekin begiratzea beste bat.

Eta, begi aundiak ditu.

Orregaitik gure kiñurik txikiena be, aundia eta bildurgarria iruditzen jako. Bera txikiago eta besteak aundiago eta bildurgarriago.

\* \* \*

**Sentimena eta gogoramen-irudimena** aundiagoak begiak baiño, oraindik. Ortik kontuak atera zer begirune erabilli bear dogun berarekin.

Kontuz.

Umetxoaren barrena ari-matasa bigun, minberatia dozu. Bigun eta legun jokatu bear Juantxo-txikirekin. Indarrez asten bazera, urratuko dozuz ari mee, argal, sentikor oneik.

Botella bat ardo puskatu dauela ta, negarrari emongo dautso, oker aundiren bat egin baleu bez. Margodun iruditxo emoten dautsozu eta an doa pozik urregorritzko pitxi bat emon ba zeuntzon lez. Txakur zuria galdu jakolako, naigabearen urratzak emango dauz urte askotan bere biotzean.

Dana da aundi beretzat.

Dana zoragarri.

Dana izugarri.

Juantxo-txiki begi-aundi eta sentimen-aundi.

\* \* \*

**Bera txikiago** eta kontua aundiago berarekin. Ala egin bearoko dozu.

Ez asarratu bere aurrean eta berarekin gutxiago oraindik. Ez garrasirik egin, basajaunaren antza emango dautsazu. Urratuko dautsazu Iarrua.

Ez jo!

On baiño geiago, kalte egingo dautsozu.

Une bateau pentsako dozu zaplastako batekin arazoa konponduta daukazula; baiña, zaplastakoekin ez da iñor obeagotzen.

Gozo erabilli umetxoa eta gozoki erakutsi on-bideak. Jainkoarekiko ar-emanak samurki eta pozgarri azaldu...

\* \* \*

**Bildurrik ez** sartu umeari biotzean. Kalte egiten dautsoe Juantxo-txikiri ipuiñ eta kondaira bildurgarriak.

Kalte izugarria.

Zenbat bildurri munduan kontu orreik dirala eta ez dirala. Bildurrak egindako zauri orreik ez jakoz sekulan ondo sendatuko Juantxo-txikiri. Zuentzako gauza txikiak izan arren, ez ahaztu umearentzat aundiak dirala eta izugarriak.

Zuen seme-alaben onaren billa ibilli zaiteze.

Erne!